

ZORROTZ

M O R R



ZENBAKI BEREZIA

ko Euskal Txo-
ulaguntzaz,

aldizkari
r nahi-
en eritziekin.
en artikuluez inon
bedi, mesedez, iturria.



ZORROTZAKO
EUSKAL
TXOKOA

ZORROTZAKO KULTUR AL

1997.eko martxoa / KORRIKA 10

KORRIKA-10... badator Zorrotzara!!

Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren, KORRIKA-k Zorrotza bisitatuko du aurki, euskararen aldeko bere aldarrikapena zabalduz. Milaka eta milaka kilometro eginak dituen lekukoa eta bere baitan daraman mezua Zorrotzako euskaltzaleok berriz ere babestuko ditugu.

Eta zein babes egokiago jaia eta guztion dibersioa baino? Izan ere hau baita KORRIKAK azken hamar aldietan izan duen izaera. Goazen bada, euskaltzale guztiok bat eginik, hizkuntzaren alde korrika egitera.

Ez beza inork esan KORRIKA eta euskara maite ez ditugunik!



Aita Villasante, lekukodun ohorekoa

Martxoaren 14an Arantzazun hasi eta 23an Bilbon bukatuko den KORRIKAREN 10. edizio honetan Aita Luis Villasante frantziskotarra, hainbat urtez Euskaltzaindiko buru izandakoa, omenduko dute. Ez da bat ere erreza Aita Villasantek bere bizitza luze bezain oparoan euskara eta euskal literaturaren alde egin dituen lan guztien berri hemen ematea. Besteak beste berari zor diogu Axular, eta orokorrean lapurtar literatura klasikoa, 70. hamarkadako belaunaldi euskaltzale berriari ezagutarazi izana, edo euskara batuaren inguruko "Eleizalde" dibulgazio-saila sonatua bera.

Izan ere Aita Villasante dugu -bere hitzekin esateko- "euskal hizkuntza literario eta batuaren" bultzatzaile nagusietakoa. Eta ezin uka euskara kontuetarako begi zolia duela Arantzazuko frantziskotar honek -eta hori ez ezik, sentikortasun berezia ere bai-. Urrutira jo gabe horrela erakutsi zuen "Euskararen Auziaz" idazterakoan, euskaltzale guztion bibliotekan aparteko tokia merezi duen harribitxi ezinbestekoa.

Villasante gure hizkuntzaren aldeko txinaurri-langile ixilaren eredu da; garai ilunetan, Euskal Herriko beste hainbat apezetxe eta monastegi bezala, euskararen gotorlekua zen Arantzazuko ormen barruko biztanlerik behinena.

ZEINEK EMATEN DIZU GEHIEN? ZEINEK EMATEN DIZU GEHIEN?

KORRIKA edizioz edizio...



KORRIKA euskararen aldeko ekitaldirik garrantzitsuena dugu. Txandakako lasterketa da, hamar egunetan, gau eta egun inoiz gelditu gabe, Euskal Herri osoa zeharkatzen duena.

KORRIKA herriren batetik igarotzen denean milaka lagunek hartzen dute parte, eta korrikalariak zurez egindako lekukoa ematen diote elkarri. Lekuko honen barruan mezu bat dago, KORRIKA helmugara iristean irakurtzen dena. KORRIKArekin batera, milaka kultur ekitaldi antolatzen dira Euskal Herriko bazter guztietan.

KORRIKA 1980.ean jaio zen. Azaroaren 29tik abenduaren 7ra bitartean buruturiko IEHEN Edizio horrek arrakasta itzela lortu zuen. Aukeratutako leloak "Zuk ere esan bai euskarari"

eta "40.000 adultos estan haciendo Euskadi, 40.000 adultos estan aprendiendo" euskara izan ziren. Oñatitik irten eta Bilbon bukatu zen. Xabier Peña eta Rikardo Arregiri omenaldia



eskaini zitzaien.

Urte eta erdi geroago, 1982.eko 22tik 30era, KORRIKAren bigarren edizioa egin zen, Iruñetik Donostiara, "KORRIKA, herriaren erantzuna euskararen alde" lelopean. Berrero ere Rikardo Arregi izan zen edizio honetako omendua.

Hirugarren edizioan. KORRIKA finkatu zen euskararen aldeko mobilizapen erraldoi gisa, "Euskaraz eta kitto" lelopean. Baionatik Bilbora, 1983.eko abenduaren 3tik 11ra izan zen hori.

Laugarren edizioak, 1985.eko maiatzaren 31tik ekainaren 9ra bitartean, "Herri bat, hizkuntza bat" mezua eraman zuen Atharratzetik Iruñara. Oraingo honetan helduen euskalduntze eta alfabetatzearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuten.

KORRIKA-5 1987.eko apirilaren 3an Hendaian hasi zen, eta 12an Bilbon bukatu. "Euskara, zeurea" aldarrikapena zeramalarik, edizio honek aurreko marka guztiak gainditu zituen.

KORRIKA-6 1989.eko apirilaren 14ean Iruñean hasi eta 23an Donostian bukatu zen. "Euskara KORRIKA eta kitto" leloa hautatu zuten orduan, eta Jose Miguel de Barandiarani eginiko omenaldia edizio horretako ekitaldirik aipagarriena izan zen.



ZEINEK EMATEN DIZU GEHIEN? ZEINEK EMATEN DIZU GEHIEN?

KORRIKA - 7
1991.eko martxoaren
15tik 24ra Gastezetik
Baionara ibili zen,
"KORRIKAK euskara,
euskaraz Euskal Herria"
mezua zabalduz. Urte
hartan, euskal gizarteak
bere hizkuntzaren alde
egiten duen apustua
nabarmentzeaz gain, euskararen izaera
bateratzaile eta integratzailea agerian geratu zen.



Remigio Mendiburu
eskultorea, KORRIKAK
darabilen lekukoaren
egilea, izan zen
omendua.

Zortzigarren edizioa
1993eko martxoaren
26tik apirilaren 4ra
burutu zen, Iruñetik
Bilbora. Mezua

gutziz integratzailea izan zen orduan ere: "Denok
maite dugu gure herria euskaraz". Azken
kilometroetan Bilboko kaleak jendez beterik
erakusten zituzten irudiak komunikabide
guztietan zabaldu
ziren. Omendua Mar-
tin Ugalde idazlea eta
"Euskaldunon
Egunkariako"
Administrazio Kon-
tseiluko kidea izan
zen.



Bederatzigarren
edizioa orain arteko
arrakastatuena izan genuen. Martxoaren 17tik
26ra Garazitik Gasteiza abiatu zen, eta 600.000
bat lagunek hartu zuten parte lasterketan bertan
zein honen inguruan antolaturiko ekitaldi
anitzetan. Aukeratutako leloa "Jalgi hadi
euskaraz" izan zen, Beñat Etxepareren ahapaldi
bat erabiliz. Omendua, berriz, Mikel Laboa
kantari historikoa.



**KORRIKA-10 MARTXOAREN 14AN ARANTZAZUKO SANTUTEGITIK ATERA, ETA 23AN BILBON AMAITUKO DA. ORAINGO
HONETAN, BERAZ, MARTXOAREN 23AN, IGANDEAN, HARTUKO DU ZORROTZAK EUKAL HERRIKO LASTERKETARIK SONATUENAREN
LEKUKOA. HAU DELA ETA KORRIKA-BATZORDEAK HAINBAT EKITALDI ANTOLATU DITU EGUN HORIETARAKO.**

KORRIKA KULTURALAREN BEHIN-BEHINEKO EGITARAUA

Martxoaren 20, osteguna

- Arratsaldeko 3ak inguruan, KORRIKA TXIKIA (Eskolen barruan txikienentzat, eta Zorrotzan zehar nagusiagoentzat).
- Ondoren Goiko Eskolan txokolatada, KORRIKAREN inguruko bideo emanaldia eta Ume Jaialdia, "Xilipurdi" Antzerki Taldearen eskutik.

Martxoaren 22, larunbata

- Goizean zehar kale animazioa eta kalejira, besteak beste Turutarra, txalapartari eta txistulariekin.
- Eguerdian, Ferial Parkean, Txiki Soinua eta Mikel Deuna abesbatzen kontzertua.
- Ondoren Dantzen Erakustaldia, Ibai-Arteren eskutik.
- Bazkalorduan, Herri Bazkaria Ferial Parkean (euriak uzten ez badu, estalpea bilatuko dugu!).
- Arratseko 5etan "Kutxo & Jai" antzeslana, "Xilipurdi" Antzerki Taldearen eskutik.

Martxoaren 23, igandea

- Goizeko 9^o10'etan KORRIKA Kaxtrexanatik Zorrotzara sartuko da eta, auzoari buelta bat eman ondoren, Bilbora abiatuko da Altamirako errepidetik. Bertan txokolatada batekin agurtuko dugu KORRIKA.
- Goizean zehar kalejira.

ZEINEK EMATEN DIZU GEHIEN? ZEINEK EMATEN DIZU GEHIEN?

Euskal Herria eta Zorrotza KORRIKA!!!



KORRIKA-10ek ezin ahaz dezake orain arte egindakoa. Ez gara hutsetik abiatzen. 1980an lehenbiziko edizioa burutu zenetik, asko izan da egindakoa. Baina, era berean, egiteke dagoena ere asko dela onartu beharra dago. Hala ere, badugu itxaropentsu agertzeko arrazoirik, asko baikara gure euskara aurrera ateratzeko prest gaudenok, eta horren froga KORRIKA bera da. Milaka lagun dira nola edo hala KORRIKARI beren bultzadatxo ematen diotenak, samurtasunez eta adorez.

Zorrotzan ere jende askoren laguntzari esker aurrera atera da KORRIKA, eta espero dugu aurtengo edizioan ere haien laguntza paregabea izatea. KORRIKAREN inguruko ekitaldiak antolatatzeko ardura KORRIKA-batzordeak izan du, eta dauka. Batzorde honek auzoko hainbat talde biltzen ditu bere baitan.

KORRIKAN parte hartzeko bideak asko dira:

*Kilometroak subentzionatuz, norberak edo besteren batek erositako kilometroan korrika eginez.

*Enpresa edo merkataldegien kasuan "korrikalaria" edo KORRIKA iragartzeko publizitate euskarriak babestuz.

*Benetako korrikalariaren ezaugarri nagusia den petoa erosiz.

*"KORRIKAREN lagun-txartela" edo KORRIKA materialea eskuratuz.

*Eta, nola ez!, petoa jantzita korrika eginez. Laguntza ekonomikoa behar-beharrezkoa izan arren, KORRIKAREN bitartez gure herrian euskara zabaldu behar dela ere erakutsiko baitugu.

Ez egon, bada, etxean. KORRIKA ezazu! Aurten ere, milaka lagun dantzan jartzen dituen jai erraldoi honetan partaide izateak sortzen dituen zirrara eta emozioa sentitzeko zoria izango dugu denok, eta

korrika egingo dugu, gure hizkuntzaren berreskurapena premiazko kontua baita. Horregatik, aurtengo leloarekin bat eginik, **EUSKAL HERRIA KORRIKA!** diogu. Berriz ere euskaldunok zein oraindik euskara menperantzen ez dutenek, denok batera, Euskal Herri osoa kontuan hartuko duen plangintza orokor baten beharra ozenki aldarrikatuko dugu, hau baita gure hizkuntzaren premia nagusia. Urratsez urrats, gelditu gabe, KORRIKA euskaraz egingo dugu.

KORRIKA-10ek aurkezturik...

MARTXOAREN 22AN, LARUNBATA, ARRATSEKO
5ETAN, ZORROTZAKO FERIAL PARKEAN

"Kutxo & Jai"

Xilipurdi Antzerki Taldearen eskutik

"Kutxo & Jai" adin guztietako publikoari zuzenduriko clown ikuskizuna da. Muntai honetan Xilipurdikoeak hainbat elementu nahasten dituzte: musika, pantomima, ikusleen parte-hartzea, objetuen antzerkia eta mila gauza gehiago...

Hamar urtez baino gehiago clown teknikak landu ondoren, "Kutxo"-k eta "Jai"-k makina bat egoera barregarri asmatu dute publikoari eskeintzeko asmoz. Ordainez beti hainbeste desiratu duten ikusleonez konplizitatea besterik ez digute eskatuko.

ZEINEK EMATEN DIZU GEHIEN? ZEINEK EMATEN DIZU GEHIEN?